



Saioa hasi

Erabiltzaile-izena



Pasahitza ahaztu duzu?
Izena ahaztu duzu?

[Erregistra zaitez!](#)

agenda

Anari eta Nick Cave Gernikan
2011/02/12 (18:00)

'Kafea eta galletak' agitarauaren barruan Nick Cave and the bad...

'Komuneko paperean' errezitaldia Oriatin
2011/02/13 (19:00)

[Komuneko paperean errezitald...](#)

'Zerbaki lehenen bakardadea' Iurretan
2011/02/16 (19:30)

[Paolo Giordanoren Zen...](#)

'Xake nobela' Bermeen
2011/02/17 (18:30)

[Stefan Zweig-en Xake nobela \(Albe...](#)

'Kartzela eta literatura' Ziburun
2011/02/19 (10:00)

Literatura Eskolako saio berria: [Kartze...](#)

[agenda osoa ikusi](#)

[Gatzetan gordeak](#) > [Abisteak](#) || [Abisteen billegia](#) > [Idazleak](#) > [Pati Zubizarretari elkarrizketa](#)

Pati Zubizarretari elkarrizketa

0 bozka



Joan. Hartzak, erlojuak eta beste piztia batzuk nobela kaleratu du **Pati Zubizarretak Txalaparta** argitaletxearen eskutik. Liburuak ez ohikoa egiten duten ezaugarriak topatuko ditu bertan irakurleak: musika eta irudiarekin elkarlanak, idazkeran estilo eta ahots ezberdinen uztarketa, istorio berari garapen posible ezberdinak ematen dizkieten hariak. Guk elkarrizketa hau fadoaren giroan murgilduta irakurtzeko gonbita luzatzen dizuegu.



Liburuaren sortze prozesuan elkarlana abiatu du egileak **Joserra Senperena** musikaria eta **Thomas Canet** argazkilariekin. Haien lanak liburuarekin batera zabaldu den DV/Dan ikus-entzun daitezke. Liburuaren somen prozesuan elkar eragin duten elementuez gain, badira kolaborazio gehiago ere: Martin Tejeria eta Maddi Oihenarten ahotsak horren lekuko.

Nobela berezia da oso *Joan*: hainbat pertsonaien ahotsetik konstatutako istorioa da, atal bakoitzak bere estetika narratibo propioa dauka, istorio berari atal bakoitzean garapen-aukera ezberdinak eman arren, osotasunean irakurrita istorioa joan badoa aurrera.

Fadoek laguntzen dituzte atalen tituluak. **Joserra Senperena** konposatutako fadoetan abiatuz irakur dezakezue honako elkarrizketa:

Amaliaren fadoa:

Marioren fadoa:

Joan. Hartu eta joan, eguneroko haria ebaki eta joan. Keinu horretan denok sarritan sentitu ahal izan duguna: zer gertatuko litzateke gure egunerokotasunaren dinamika apurtuko bagenu, ez ohiko bide bat hartzeko? Irudi horretatik abiatuta idatzi duzu?

Bai, beharbada hori nobelaren abiapuntuetako bat da. Zer gertatuko litzateke baldin eta...? Baina kasu honetan abiapuntu hori bi anaiaren arteko harreman gaiztotatik sortzen da, eta aukera baten antzera agertzen zaigu. João oso gaizki dagoela dakigu eta Mariok erabaki beharko du harengana joan, ez joan... edo, ze arraio, bere bizitza biplanteatu.

Aipatu duzun abiapuntu gertaeraren inguruan garatuko da liburuak, baina hor ere riabardura handiekin, abiapuntu istorioa atal denetan bera izanik ere ez da beti berdin gertatuko. Horrekin ere balizko bideak, gure bizitza posibleak adierazi nahi izan dituzu?

Batzuetan pentsatu izan dut erabakimena dela nobela laburbiltzen duen hitza, hau da, erabakien inguruko hausnarketa narratiboa dela. Egutero hainbat eta hainbat erabaki hartzeri behartuta gaude, batzuk kontzientek dira, baina asko modu inkontzientean hartzen ditugu, eta horrek, adituek dioten bezala, halako shock egoera batean uzten gaituela. Hemen Mario protagonistaren hiru erabakiren garapena kontatzen zaizkigu: zer gertatuko litzateke anai gaixoarengana joango balitz?, zer gertatuko litzateke beraren ordean lagun bat bidaliko balu?, eta, azkenik, zer gertatuko litzateke anaiarengana joan beharrean



"Badago halako nostalgia bat, izan gintezkeenaz baina dagoeneko ezinezkoa denaz"



"Batzuetan pentsatu izan dut erabakimena dela nobela laburbiltzen duen hitza"



"Bakarkako lana gustuko dut, baina bizi ditugun garai haueetan diziplinartekotasuna bide bat da"

Erakusleihoa



'Boligrafo Gorria'n arrantzatua: Literatura eta boxeoa ez daude elkarrengandik hain urrun.

arrantzatuak

- Haren azken borrodatearen aurka, estatua batez omenduko dute Dickens
- Amaitu Lasa: Libertatea oso ederra da, baina oso gogorra'
- Josebo Azkona Arratsean
- A Urretbizkaian elkarrizketa Argian
- 8 poema idazleak irakurriak (Paddy Rekalde)

[arrantzatu guztiak](#)

bitsiatuenak

Fotonobela bost amasalditan
258 2011/01/17 | [Aingura hegodunak](#)

Auzoko amona
217 2011/01/23 | [Aingura hegodunak](#)

Jon Miner eta Edorta Jimenez
209 2011/01/18 | [Poema musikatuak](#)

Nikola Madzirov-en poemak Harkaitz Canoren eskutik
141 2011/01/23 | [Amuak](#)

"Idazten dudanean libre sentitzen naiz"
138 2011/01/21 | [Elkarrizketak](#)

bereraplanonik batengana joango balitz...? Eta paradoxikoa da: erabakirik hausnartuenak ondoriorik txarrenak ekar ditzake, eta egoistenak eta bat-batekoenak, beriz, zoriotsuenak...

Bada malenkonia aire bat horretan guztian? Fadoek izendatzen dituzte atalak, atzera begiratzean ilun-argiak dituzte pertsonaien barne munduek, jarrera eta jokamoldeek... bizitza badao, egin ditugun aukerak bezain beste osatu gaituzte egin ez ditugunek. Malenkonia ala ezintasuna?

Badago, noski, baina hitz erabiliegiak direnez apenas erabiltzen den fado hitza, eta ez dut uste saudadea ere aipatzen denik. Eta hala ere badago halako nostalgia bat, izan gintezkeenaz baina dagoeneko ezinezkoa denaz. Beharbada hori ongien islatzen duen irudia Lisboa dagoen British Bar-eko etloja da. Esferan orduak atzekoz aurrera jasota daude eta norbera tabemara 12etan sartu eta 11etan irten daiteke. Horrek halako desasosogoa eragiten du, bai, halako ezintasuna nahi baduzu. Badirudi gizarte honetan dena dela agindu eta promes, denak dirudiela eskura, azkar irents dezagun gainera, erabili eta bota, hartu eta joan..., baina hori ez da inondik ere egia, eta horretaz oharrezako askotan berandu da, edo ez...

Atal bat, ahots bat, estilo bat. Hasieratik argi zenuen horrelako konposizio bat izango zela? Lehena idatzi ahala joan ziren sortzen besteak?

Esango nuke hori baino ez nekiela, hau da, bost ahots izango zirela. Hain zuzen ere horixe izan zen Joseerra Senperanari egin nion proposamena, bost fado konposatzeko pianorako... Gustatzen zait pertsonaia bakoitzaren izaerari dagokion estiloa, hizketa molde definitzea, eta saiatzen naiz hori formalki ere adierazten. Adibidez, Adela. Ez nekien nola aditzera eman, baina halako batean pentsatu nuen lokartu aurreko azken minutuko jasoko nituela, egunaren errepasoa egiteko erabiltzen ditugun horietan hain zuzen, eta haren pentsamendu lotura gabea loaren etorerrak lausotzen du, eta amaitzen, horregatik da gero eta laburragoa, horregatik ez du ia puntuazio markarik. Dena dela, atalen ordenak zal antza eragiten zidan. Une batez, bosgarren fadoa hasieran jartzeko gogoia ere izan nuen... Hala ere, esango nuke sekula ez dudala halako idazketa prozesurik bizi izan, ze Joseerak sortu egin zituen fado horiek, eta nik haren musikarekin jarraitzen nuen idazten, eta gero, Thomas Canetek argazkiak eta bideoak prestatu zituenean, haiekin zuzentzen nuen ordura artekoa.

Atalok fisikoki modu ezberdinean antolatzeak (erdirantz justifikatua, elkarrizketa moduan, egunerokoa, oharrak, ipuin klasiko...) lagundu dizu ahots ezberdinak topatzeko orduan? Edo beste modu batera esanda, fisikoki formatu berdinean eginez gero ahotsak ezberdintzea nekezagoa izango zen?

Aukera asko aztertu nituen. Mallarmé poetak liburuko bi orrialdeak bakartzat hartzen zituen, eta hori aukera bat zen atalen baterako. Beste bat liburu arabiarretatik zetorkidan, hau da, bosgarren fadoa, beharbada desberdinean, gure amaieratik, kontrazaletik alegia abiatzea, atzekoz aurrera irakurtzea, etloju haren antzera. Baina azkenean ez konplikatzera erabaki nuen, bai, estetikoki desberdintasunak markatzea —idazketa agertzeko modua pertsonaien arropa balitz bezala erakustea—, baina letra tipo bera erabiltzea eta ordenean ere oztoporik ez ematea. Hor ere erabaki behar izan nuen, eta Monti maketatzailearen iritzia oso argigarria egin zitzaidan, uste dut haren lana bikaina izan dela liburua objektu moduan definitzeko.

Portugal eta Ipar Euskal Herriaren artean kokatu duzu akzioa gehienetan. Tartean tren, errepidea, distantzia funtsean, ezlekua. Zer nolako paisaiak egin zaizkizu lagungarri?

Euskal Herria, zehatzago esatearren, Santa Grazira etorriko zen pertsonaia atzerri bat nahi nuen, gure egoerari, gure bizimoduari, gure ohiturei kanpotik begiratuko ziena, eta Lisboa oroitutako nintzenen garbi sentitu nuen nobelak espazio hori behar zuela, niri pizgarria zitzaidaldea. Ordizian, nire jaioterian, tren geltokitik hurbil bizi ginen, eta zenbatetan ez ote genuen Surexpresoa ikusi, batzuetan barrikaden eraginez ez atzera ez aurrera, eta etorkin portugaldarrek han kiato, Parisera joan ezinik... Orduan aurrera egiteko gogoia ere sentitu nuen, Lisboa film trepidantea etorri zitzaidan gogora, edo Xuan Bello idazle asturiarrak Lisboa buruz idatzitakoak —British Bar-eko etlojuaren berri haren Historia universal de Paniceiros edo Cuarteles de la memoria liburu zoragarrietan izan nuen, eta oso pozgarria egin zitzaidan nik ere tren hartu, eta hura Chiadotik hurbil deskubritzea—, Saramagok eta Llamazaresen idatzitakoak ere baliatu nituen. Baina Zuberoko, bortuak eta batez ere Pirinio osoko kultura ere oso gogoan nituen eta ditut, Maskaradak eta Pastoralak etorkizuneko atean joka dabilen dinosauioak iruditzen zaizkit, ipuin zaharretan, hartz erakusleen usadioetara... Baina idealizazio inozonik gabe agertu nahi nituen, horregatik nahiago nuen kanpoko baten ikuspuntua. Hala ere, funtsean, uste dut bi aniaia protagonistek, kasik bi espazio antagonista ere behar zituztela, tartean hiria eta herrixka, bi denbora kontrakarrean...

Hastapenean aipatu dugu irudia, musika eta hitzaren arteko elkarlana. Zer bilatu duzue, elkar osatzea, elkar interpretatzea, elkar eragitea?

Bai, nik uste dut hori guztia eskaini nahi genuela. Noizbait Lertxundiri irakurmi nion badela literatura irakurtzeari utzi dion irakurle go bat, sekula itzuliko ez dena, baina geratzen den irakurle bakoitza zaindu beharra daukagula, hori eutsi, hori atxiki. Eta horixe nahi genuen, irakurlearen iradokizun maila zabalago bat eskaini, deskubrimendu eta emozio desberdinak egiteko aukera proposatu. Niretzat musika oso pizgarria da, ez da horren eplizitua, eta letra baino unibertsalagoa da, ez du itzulpen beharrik. Antzeko zerbait gertatzen zait imaginarekin ere, eta horretan, Juão protagonistarekin bezala gertatzen da Thomas Canetekin: bera madildarra da eta bere argazkiek Zuberoko buruzko beste ikuspegi bat eskaintzen digute, ez hain folklorikoa... Zentzu horretan Txalaparten esku zabaltasuna nabarmendu nahi nuke. Proiektua elur bola baten antzera gorpuzten eta zabaltzen joan zen. Hasieran liburua bera bi formatutan saltzea pentsatu genuen, batetik liburu hutsa, eta bestetik liburua DVD-arekin. Eta bosgarren ataleko ipuina grabatzeko ideia —norekin eta Martin Tejeriarekin eta Maddi Oihenartekin— haiena izan zen. Nik uste dut plazer estetiko handitzeko ahalegina egin dugula, eta geratzen den irakurle hori opari bat eskaini.

Idazlearena bakarkako artea da, oso gutxitan sortzen dira hainbat eskutara idatzitako lan interesgarriak. Idazleek sarritan bilatzen dituzte hala ere talde lanak, dela errezitaldietan, kolaborazioetan, erakusketetan... zure idazle-oskoletik ateratzeko beharra piztu izan zaizu horrelako elkarlanekin?

Aitortu behar dut gaizki ohitua nagoela. Haurrentzat lan bat idazten dudanean, marrazkilariek uste baino opari handiagoa egiten didate haien marrazkiekin, haien interpretazioekin. Ez dakit, irudipena izaten dut liburua lau eskutara borobiltzen dugula. Ez dut uste liburu guztiek bestelako osagarriak behar dituztela, baina sartu liburudenda batera eta estetikoki liburuak beti-bat ikusten ditut. Berritoki ere haurrentzat ere badiren albumak izan ezik, edo arkitektura edo arte liburuak. Bai, proposamen estetiko gutxi ikusten dut irakurle moduan. Ematen du gaur egungo idazleak XXI. mendea jasotzeko XX edo ia XIX mendeko teknikak erabiltzen ditugula, edo zinemarekin alderaturik, zuri-beltzeko zinema mutuan geratu garela, gaur egungo filmak 3Dkoak diren bitartean... Bakarkako lana gustuko dut, bakardadea beharrezkoa zait, baina bizi ditugun garai hauetan diziplinarietotasuna bideetako bat dela. Zentzu horretan, etxezuloetik ateratzea eta musikari nahiz bestelako artistekin aritzea opari bat zait, eta halaxe izatea nahi nuke ikusle-entzulearentzat ere. Uste dut gure diskurtso asko ere iraganean geratu direla, ainguraturuta bezala, eta aireberritzea komeni zaigula, oro har betiere.

Joan liburuko lau aipu, galdera moduan jarriak:

1. Zenbat denbora behar du gertakari batek oroitzen bilakatzeko?

Ez dakit, hain azkar bizi izanda, ez ote dugun oroimena herdoiltzen uzten, ez ote dugun instantea ahanzten.

2. Heriotza tikiak dira, egunero-egunero hiltzen gaituztenak, eraisten gaituztenak.

Lokartzea bera heriotzaren esperientzia aurrebiritzea omen da. Baina bai, egunero dugu heriotza ttiki bat baino gehiago; kontua, agian bizi izanaren kontzientzia tarteka zaintzea izan daiteke, bizirik sentitzea.

3. Heriotza zer da, ba, bizitzaren dezepzioa baino?

Dezepzioa heriotzaren sinonimoetako bat iruditzen zait, errealismoaren armetako bat.

4. Lehen, gaztetan, gertatzeaz zegoenaren no stalgia sentitzen genuen, baina orain ziur dakigu espero genuena ez dela gertatuko, ezer ez dela izango guk desio genuen bezala...

Bai, uste dut gutasuna, idealismoa bezala gainpreziatua egon dela gurean, eta literaturak pausatzerantz eraman zaitzakeela, gauza ttikiak gehiago preziatzerantz, bizitzaren garaipen nīmiño horiek...

Material Osagarria:

Bibliografia.

Patxi Zubizarreta Sautrelan, 1 eta 2.

 Bisitak: 24  Postaz bidali  Hedatu  Gogokoenetara gehitu

Iruzkinak (0)

 Artikulu honetako iruzkinetara harpidetu.

Iruzkina idatzi

Saioa hasi behar duzu iruzkinak egin ahal izateko. Hitzen Uberaneko kide ez bazara erregistra zaituzte.

